

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOAREN 2014ko DEIALDIA

GIZARTEAREN ERRONKETARA BIDERATUTAKO I+G+B ESTATU PROGRAMARAKO LAGUNTZAK

Orientatu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen lehengo azpiprograma

1. modalitatea: "Ikerketa erronkak": I+G+B proiektuak

Helburua (16. art.)

1. Jarduera ez ekonomikotzat hartzen diren ikerketa proiektuak, Espainiako gizartearen zortzi erronka handietara bereziki bideratutako ezagutza berriak lortzeko helburu nagusiarekin hasitako lan esperimental edo teorikoetan datzatenak, finantzatzea. Ezagutza berri horiek aurrerapena ekarriko dute dagokien esparruan, eta Zientzia eta Teknologiaren eta Berrikuntzaren Espainiako Estrategian identifikatutako erronkei erantzunoko dire.

1. Osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea.
2. Segurtasuna, elikagaien kalitatea: nekazaritzako ekoizpen jarduera iraunkorra; baliabide naturalen iraunkortasuna, itsasoko ikerketa.
3. Energia segurua, eraginkorra eta garbia.
4. Garraio adimenduna, iraunkorra eta integratua.
5. Aldaketa klimatikoaren gaineko ekintza eta baliabideen eta lehengaien erabilera eraginkorra.
6. Gizarte aldaketa eta berrikuntzak.
7. Ekonomia eta gizarte digitala.
8. Segurtasuna, babesa eta defentsa.

Giza eta Gizarte Zientzietako ikerketa izaera unibertsalarekin jasotzen da, eta gizartearen erronkentzako konponbideak bilatzeko ikerketa zientifiko-teknikoaren funtsezko parte bat izango da.

Era berean, erronka guztiei aplikagarri zaizkien teknologiatzat hartzen dira oinarritzko teknologia erraztaileak, 2020 Horizontean identifikatutakoekin bat etorritik, Zientzia eta Teknologiaren eta Berrikuntzaren Espainiako Estrategiaren baitan sartzen direnak: fotonika, mikro eta nanoelektronika, nanoteknologia, material aurreratuak, bioteknologia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

2. Etorkizun oparoko ibilbide zientifikoak egin dituzten eta proiektu zuzendaritzan hasten diren ikertzaile gazteek zuzendutako ikerketa proiektuak bultzatzea.

3. Adierazgarriak, asmo handikoak eta nazioarteko proiektzio nabarmenekoak diren ikerketa proiektuak finantzatu nahi dira, ikerketa taldeak zatitzea saihestuz, eta proiektu bakarrean sinergiak eta taldeak elkar daitezen bultzatuz.

4. Autonomia erkidegoekin batera eskainiko den programazioa sustatu nahi da, eta ebaluazio positiboa izan arren finantziarioa jasotzeko behar den lehentasuna ez daukaten I+G+B proiektuen eskaerei finantziarioa jasotzeko aukera ematea erkidegoek I+G+B proiektuetarako egingo dituzten deialdietan.

Modalitate honetarako erabilgarri dagoen

153.906.000 euro, beste 30 milioi gehiago ere izateko moduan.

aurrekontua (19.3 eta 19.4 art.)	
Gauzatzeko epea (17. art.)	3 urte, oro har, 2 edo 4 urteko proiektuak eskatu ahal izango diren arren, proiektuaren ezaugarriek hala eskatuz gero. Proiektuen iraupena emakida ebazpenean zehazten den datatik hasita zenbatuko da. Data hori ezingo da izan 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa.
Proiektu bereziak arautzea (8. art.)	- Gizarte zientzien esparruan, inkesta kuantitatiboen bidez azterlanak egitea dakarten proiektuak, datuak hartuta: Proiektu hauetako ikertzaile nagusiek beren azterlana osatzen duten mikrodatuak helarazi beharko dizkiete Gizarte Azterlanen Datu Espezifiko Bankuari, 12 hilabeteko gehienezko epean. Horretarako, eskaera aurkeztu aurretik, ikertzaileek Hasierako Gordailu Plan bat bidali beharko dute Ikerketa Soziologikoen Zentrora. Plan horretan, mikrodatuak transferitzeko betebeharra betetzeko konpromisoa hartuko da. (8.2 art.) - Bioetika, animalien esperimenezkoak, biosegurtasuna eta segurtasun biologikoa arloetako inplikazioak dituzten proiektuak: Jarduketa hauek baldintzak bete behar dituzte, eta ikerketa jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren baimen, ziurtagiri edo txostenak eduki behar dituzte, indarreko legeriak gai horiei buruz ezarritakoaren arabera. (8.3 art.)
Deialdia eta oinarrien ordena	Deialdia: : 2014-08-8ko EBO Oinarri arautzaileak: ECC/1780/2013 Agindua, irailaren 30a
Proiektu motak (17.a art.)	a) <u>A motako I+G+B proiektuak</u>: Gazte ikertzaile nagusi batek edo bik zuzenduko dituzte; ekarpen zientifiko-tekniko esanguratsu eta berritzaileak egin dituztenek, eta 2013-2016 aldiko I+G+B Estatu Planaren zein 2008-2011 aldiko I+G+B Plan Nazionalaren deialdietako ikerketa proiekturik zuzendu ez dutenek. b) <u>B motako I+G+B proiektuak</u>: Proiektu hauek ikertzaile nagusi batek edo bik zuzenduko dituzte. (17.1 b art.) Bi proiektu motak proiektu indibidual gisa edo koordinatutako proiektu gisa (bakoitza bere ikerketa taldearekin) egin ahal izango dira.
Koordinatutako proiektuen ezaugarriak	<u>Honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte: (17.2 art.)</u> - Gutxienez bi azpiproiektuz eta gehienez sei azpiproiektuz osatuta egongo dira. - Azpiproiektuak A edo B motakoak izan daitezke, nahiz eta koordinatzailearen azpiproiektuak B motakoa izan behar duen. Halaber, erakunde onuradun desberdinenak edo berberarenak izan daitezke, betiere, erakunde berarenak direnean, koordinatutako proiektuari dimentsio garrantzitsu bat ematen bazaio, hain zuzen ere, bi ikertzaile nagusiko proiektu indibidual batekin gauzatu ezin dena. - Koordinatutako proiektuaren erronka, kudeaketa arlo tematikoa eta iraupena bakarra izango da, bai eta azpiproiektuetako bakoitzarena ere. Erronka, kudeaketa arlo tematikoa eta iraupena ikertzaile koordinatzaileak aukeratuko ditu eskaera egitean.

IKERTZAILE NAGUSIAK	
Ikertzaile nagusien aplikazioan alta egitea (10.8 art.)	Ikertzaile nagusiek eskatutako laguntzaren xede den jarduketari loturiko edozein dokumentazio Facilit@-n eman ahal izan dezaten, honako alderdi hauek bete beharko dira: ✓ Bidali aurretik, ikertzaile nagusiak ikertzaile gisa akreditatuta egon beharko du RUSen. ✓ Erakunde interesdunaren legezko ordezkariaren sinadura elektronikoarekin osatu beharko da bidalketa. RUSeko inskripzioa, jada inskribatuta egon ezean, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzako egoitza elektronikoan egin ahal izango da. Erregistroan, "Ikertzailearen erregistroa" atalean, erabiltzaile izena eta gako hitza identifikatu eta definitu ahal izango dira.
Betekizunak (18. art.)	<u>a) B motako proiektuetarako:</u> ➤ Doktoreak izatea. (18.2 a) art.) ➤ Erakunde eskatzaileko langilea izatea, eta funtzionario, estatutu edo lan lotura formalizatuta izatea (mugagabea edo aldi batekoa), gutxienez, proiektua gauzatzeko eskatutako epea estaltzeko moduan eta jardunean egotea. - Salbuespena: Ramón y Cajal programako ikertzaileak, erakunde onuradunarekin edo erakunde elkartuarekin proiektua gauzatzeko epea baino laburragoa den lotura dutenak, ikertzaile nagusi gisa aurkeztu ahal izango dira, betiere, proiektua gauzatzeko epe osoan zehar erakunde onuradunarekiko lotura betekizunak betetzen dituen beste ikertzaile nagusi batekin batera aurkezten bada proiektua. (18.3.a art.) - Salbuespena: 2013ko deialdiko Ramón y Cajal programaren edo doktoreak kontratatzeke beste programa batzuen barruan (Estatuko Administrazioarenak zein Autonomia Erkidegoetako Administrazioarenak) hautatutako hautagaiek, eskaerak aurkezteko epe amaieran oraindik erakunde eskatzailearekiko beren kontratu harremana formalizatu ez dutenek, proiektu bat eskatu ahal izango dute ikertzaile nagusi gisa, baldin eta kontratu hitzarmena egin badute erakunde eskatzailearekin. Kontratu hori egin ezean, baztertu egingo da eskaera. (Art.18.3.a) ➤ Lanaldi osoan edo lanaldi partzialean aritzea (urtean gutxienez 800 ordu). (18.3.b art.) ➤ Halaber, ikertzaile nagusi izan daitezke irakasle emerituak, CSICeko "ad honorem" doktoreak edo akademiko numerarioak, erakunde onuradunarekiko kontratu loturarik ez dutenak, edo izanda ere, proiektuaren iraupena barne hartzen ez dutenak, betiere, proiektua gauzatzeko epe osoan zehar betekizunak betetzen dituen beste ikertzaile nagusi batekin batera aurkezten bada proiektua. Hori ezinezkoa bada, erakunde eskatzaileak kudeatzaile bat izendatuko du, eta kudeatzaile hori izango da kontratu harremanik ez dagoen bitartean proiektua behar bezala gauzatzeko administrazio arduraduna. (18.4 art.) <u>b) A motako proiektuetarako:</u> a) puntuko betekizunak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte: ➤ Doktore gradua lortzeko datak 2003-12-31z geroztikoa izan beharko du. Doktorego bat baino gehiago izanez gero, betekizun hau lortutako lehenengo doktoregoari lotuko zaio. (18.5.a art.)

	➤ Aurrez ondorengo deialdi hauen barruan urtebetetik gorako iraupeneko proiektu edo azpiproiektuetako ikertzaile nagusi ez izatea: I+G+B Estatu Plana (2013-2016): - o "Ikerketa erronkak" 2013ko deialdia: I+G+B proiektuak - o "Ezagutza sortzea" 2013ko deialdia: I+G proiektuak - o Osasun arloko ikerketa proiektuen 2013ko deialdia, Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. - o Orientatu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen 2013ko deialdia, Nekazaritza eta Elikaduraren Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalarena (INIA) I+G+B Estatu Plana (2008-2011): Orientatu gabeko funtsezko ikerketa proiektuen azpiprogramaren 2012ko deialdiak edo aurrekoak, nekazaritza teknologia eta baliabideetara orientatutako funtsezko ikerketa azpiprogramakoa, INIAko autonomia erkidegoekin koordinatuta, eta osasun arloko ikerketa proiektuetakoa, Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. (Art.18.5.b)
Bi ikertzaile nagusi egoteko aukera (18.3 a art.)	Bi ikertzaile nagusiko proiektuen kasuan, biek erakunde onuradun berekoak izan beharko dute, onuradun elkartuek parte hartzen dutenean izan ezik. Kasu horretan, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarekin solaskide gisa jarduten duen ikertzaile nagusiak erakunde eskatzailekoa izan beharko du.
Dedikazio eta bateragarritasun erregimena (18.6 art.)	➤ Proiektu hau izan beharko da beren dedikazio bakarra. (18.6. a art.) ➤ Mota honetako eta deialdiko honetako 3. motako eskaera bakar bat aurkeztu ahal izango dute, bai eta ondoko deialdiren batean ere: - o "Ezagutza sortzea" 2013ko deialdia: I+G+B proiektuak - o Osasun arloko ikerketa proiektuen 2014ko deialdia, Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. - o Orientatu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen 2014ko deialdia, Nekazaritza eta Elikaduraren Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalarena (INIA) Eskaerak aurkezten dituzten ikertzaile nagusiek ezingo dute hartu parte ikertaldeko kide gisa aipatutako deialdietako batean ere ez. ➤ Modalitate honetan ikertzaile nagusi gisa parte hartzea ez da bateragarria izango honako deialdi hauetan ikertzaile nagusi edo taldekide gisa parte hartzearekin: (Art. 18.6.c) I+G+B Estatu Plana (2013-2016): - o "Ikerketa erronkak" 2013ko deialdia: I+G+B proiektuak - o "Ezagutza sortzea" 2013ko deialdia: I+G proiektuak - o Osasun arloko ikerketa proiektuen 2013ko deialdia, Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. - o Orientatu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen 2013ko deialdia, Nekazaritza eta Elikaduraren Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalarena (INIA) I+G+B Estatu Plana (2008-2011): – Orientatu gabeko funtsezko ikerketa proiektuen azpiprogramaren 2012ko deialdiak edo aurrekoak, nekazaritza teknologia eta baliabideetara orientatutako funtsezko ikerketa azpiprogramakoa, INIAko autonomia erkidegoekin koordinatuta, eta osasun arloko ikerketa proiektuetakoa,

	Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. <i>Bateragarria izango da baldin eta proiektuen amaiera data 2014ko abenduaren 31a baino beranduagokoa bada, betiere kontuan hartuta laguntza ematen duen erabakian hasiera batean zehaztutako epea.</i> ➤ Ez da bateraezina izango Europar Batasunaren I+G+B arloko VII. Esparru Programako edo H2020 Programako deialdiko proiektuekin, Ikerketaren Europako Gunearen Baterako Programazioko ekimenekin, autonomia erkidegoetako I+G+B eskualdeko planekin, edo aurreko atalean adierazi gabeko bestelako deialdiekin. (18.6 c art.)
IKERKETA TALDEKO KIDEAK	
Betekizunak (18.7 eta 18.8 art.)	➤ Goi mailako tituludun kategoria duten doktore edo ikertzaileak. (18.7 art.) ➤ Erakunde eskatzaileko langilea izatea, eta funtzionario, estatutu edo lan lotura formalizatuta izatea (mugagabea edo aldi batekoa), gutxienez, proiektua gauzatzeko eskatutako epea estaltzeko moduan eta jardunean egotea. (Art.18.8.a) ➤ Doktoreek erakundearekin duten lotura proiektuaren indarraldia baino laburragoa bada, indarraldi hori amaitu artean doktoreak erakundeari lotuta egongo direla ziurtatu beharko du erakundeak. (Art.18.8.a) ➤ Onuraduna ez den beste erakunde bateko kideek beren erakundearen berariazko baimena izan beharko dute. (Art.18.8.a) ➤ Proiektua izatea dedikazio bakarra, edo dedikazio partekatua izatea deialdi honetako bi proiektutan, edo deialdi honetako proiektu batean eta ondorengo deialdietako beste batean: (18.8 c) art.) - o 2014ko deialdia, 1. mota (Gizartearen erronkak: I+G+B proiektuak) eta 3. mota (Gizartearen erronkak: I+G proiektuak ikertzaile gazteentzat, aldi baterako lotura izan ala ez izan). - o "Ezagutza sortzea" 2014ko deialdia: I+G+B proiektuak - o Osasun arloko Ikerketa Proiektuen 2014ko deialdia, Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. - o Orientatu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen 2014ko deialdia, Nekazaritza eta Elikaduraren Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalarena (INIA) I+G+B Estatu Plana (2013-2016): - o "Ikerketa erronkak" 2013ko deialdia: I+G+B proiektuak - o "Ezagutza sortzea" 2013ko deialdia: I+G proiektuak - o Osasun arloko Ikerketa Proiektuen 2013ko deialdia, Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan. - o Orientatu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen 2013ko deialdia, Nekazaritza eta Elikaduraren Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalarena (INIA) I+G+B Estatu Plana (2008-2011): Orientatu gabeko funtsezko ikerketa proiektuen azpiprogramaren 2012ko deialdiak edo aurrekoak, nekazaritza teknologia eta baliabideetara orientatutako funtsezko ikerketa azpiprogramakoa, INIAko autonomia erkidegoekin koordinatuta, eta osasun arloko ikerketa proiektuetakoa,

	Osasuneko Ekintza Estrategikoaren barruan.
LANTALDEKO KIDEAK	
Nor? (18.9 art.)	Proiektua gauzatzen parte hartzen duten eta taldeko kideei eskatzen zaizkien betekizunak betetzen ez dituzten pertsonak: proiektuaren indarraldi osoan erakunde onuradunarekin lotura izango ez duten doktoreak, erakundeak konpromiso hori hartu ez duelako; prestatzen ari diren langileak; teknikari laguntzaileak; kontratatutako langileak; irakasle gonbidatuak; helbide soziala Espainian ez duten ikerketa erakundeetako ikertzaileak.
DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK (20.6 art.)	
Langile gastuak (20.6.a art.)	✓ Kontratatutako langileak. Ez dira finantzatzeko erakunde onuradunarekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura duten langile finkoen gastuak. ✓ Ez izango da prestakuntza bekarik eskatu, ezta egotzi ere.
Ekipamendua (20.6.b art.)	✓ Ekipamendu zientifiko-teknikoa erostea, alokatzea, mantentzea edo konpontzea ✓ Ekipo informatikoak ✓ Ordenagailuko programa teknikoak ✓ Material bibliografikoa <i>Ez da egongo ekipamendua erosteko aukerarik proiektuaren indarraldiko azken bi hilabeteetan.</i>
Material suntsikorra (20.6.c art.)	✓ Material suntsikorra, hornidurak eta antzeko produktuak.
Azpiegiturak (20.6.d art.)	✓ Azpiegitura zientifiko eta tekniko bereziak erabiltzea eta Estatuko zein nazioarteko instalazio zientifiko handietara sartzea. ✓ Erakundearen ikerketa zerbitzu orokorrak (SGIKER) erabiltzea.
Bidaia eta dietak (20.6.e art.)	✓ Biltzar eta konferentzietara joatea. ✓ Bisitak eta egonaldi laburrak. Gastu hauek honako hauenak izan daitezke: gonbidatuak, ikerketa taldea, eskaeraren memorian aipatzen den lantaldea edo beren parte-hartzea segimendu zientifiko-teknikoaren txostenetan behar bezala justifikatzen dutenak.
Jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak (20.6.f art.)	✓ Eskaera kostuak eta bestelako mantentze gastuak.
Argitaratzea eta zabaltzea (20.6.g art.)	✓ Emaitzak argitaratzea eta zabaltzea, sarbide zuzeneko aldizkarietan argitaratzetik eratorritakoak barne. ✓ Biltzar eta jardunaldi teknikoetako inskripzioak. ✓ Jarduera nazioartekotzeko gastuak eta Estatuko zein nazioarteko beste talde batzuekiko lankidetzat jardueretatik eratorritakoak.
Prestakuntza (20.6.h art.)	✓ Proiektua eta jarduera zientifiko-teknikoak gauzatzeko ezinbestekoak diren prestakuntza jarduerak.
Azpikontratazioa (20.6.i art.)	✓ Emandako laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 25 arte. Kopuru hori handitu egin ahal izango da behar bezala justifikatutako kasuetan.
Auditoriako gastuak (Art.20.8)	✓ Erakunde onuraduna aldatuz gero egin beharrekoa den auditoria txostenaren gastuak aukerakoak izango dira (gehienez ere 1.200 euro). <i>Gastua justifikatu ahal izateko, eskaeran galdetzen bada erakunde onuraduna auditoria egitera behartuta dagoen, erantzun ezetz.</i>

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK (21. art.)

2014ko irailaren 8tik 2014ko irailaren 29ko 15:00ak arte, Humanitate eta Gizarte Zientzien Sail Teknikoari (DTHCS) dagozkion eskaerak:

Arloa: Gizarte Zientziak (CSO)

- Azpi-arloak:- Komunikazioa (COMU)
-Politika Zientziak (CPOL)
-Geografia (GEOG)
-Soziologia (SOCL)

Arloa: Kirol Zientziak (DEP)

Arloa: Zuzenbidea (DER)

Arloa: Ekonomia (ECO)

Arloa: Hezkuntza Zientziak (EDU)

Arloa: Ikasketa Feministak, Emakumearen Ikasketak eta Genero Ikasketak (FEM)

Arloa: Filologia eta Filosofia (FFI)

- Azpi-arloak: - Filologia (FILO)
-Filosofia (FISO)

Arloa: Historia eta Artea (HAR)

- Azpi-arloak: - Artea (ARTE)
-Historia (HIST)

Arloa: Psikologia (PSI)

2014ko irailaren 9tik 2014ko irailaren 30eko 15:00ak arte, Bizitza Zientzien Sail Teknikoari (DTCV) dagozkion eskaerak:

Arloa: Nekazaritzako Elikagai Baliabideak eta Teknologia (AGL)

- Azpi-arloak: - Akuikultura eta Arrantza (ACU)
-Nekazaritza (AGR)
-Elikagaiak (ALI)
-Basoko (FOR)
-Abeltzaintza (GAN)

Arloa: Oinarritzako Boilogia (BFU)

- Azpi-arloak: - Biologia Integratua eta Fisiologia (BFI)
-Biologia Molekularra eta Zelularra (BMC)

Arloa: Bioteknologia (BIO)

Arloa: Biomedikuntza (SAF)

2014ko irailaren 10etik 2014ko urriaren 1eko 15:00ak arte, Ingurumen eta Baliabide Naturalen Sail Teknikoari (DTMA) dagozkion eskaerak:

Arloa: Eraikuntza (BIA)

Arloa: Biodibertsitatea, Lurraren Zientziak eta Aldaketa Globala (CGL)

- Azpi-arloak:-Biodibertsitatea (BOS)
-Lurraren Zientziak (BTE)
-Atmosfera, Klima eta Aldaketa (CLI)

Arloa: Ingurumen Zientziak eta Teknologia (CTM)

- Azpi-arloak:- Ikerketa Polarra (ANT)
-Itsas Zientziak eta Teknologia (MAR)
-Ingurumen Teknologia (TECNO)

Arloa: Kimika Zientziak eta Teknologia (CTQ)

Azpi-arloak: -Oinarrizko Kimika (BQU)

-Kimika Teknologia (PPQ)

Arloa: Energia (ENE)

Azpi-arloak: -Ordezko Energiak (ALT)

-Ohiko Energiak (CON)

-Fusio Termonuklearra (FTN)

Arloa: Garraio Baliabideak (TRA)

2014ko irailaren 11tik 2014ko urriaren 2ko 15:00ak arte, Komunikazioen eta Ekoizpen Teknologien Sail
Teknikoari (DTPC) dagozkion eskaerak:

Arloa: Astronomia eta Astrofisika (AYA)

Arloa: Diseinu eta Produkzio Industrialak (DPI)

Arloa: Ikerketa Espaziala (ESP)

Arloa: Fisika (FIS)

Arloa: Partikulen Fisika (FPA)

Arloa: Materialak (MAT)

Arloa: Matematikak (MTM)

Arloa: Teknologia Elektronikoak eta Komunikazio Teknologiak (TEC)

Azpi-arloak: -Tecnologia Elektronikoak (MIC)

-Komunikazio Teknologiak (TCM)

Arloa: Teknologia Informatikoak (TIN)

Azpi-arloak: -Tecnologia Informatikoak (TIN)

-Informazioaren Gizarterako Teknologiak (TSI)

Epe hauek nahitaez Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren (MINECO) egoitza elektronikoan eskuragarri dauden bitarteko elektronikoaren bidez egin beharko den eskaera formal aurkezteko datari egiten diote erreferentzia. Beraz, ikertzaile arduradunak eskaeraren behin betiko bidalketa **3 egun baliodun** lehenago, Ministerioan, egin dezala eskatzen dugu, Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura elektronikoarekin arazorik egon ez dadin.

Hala egin ezean, Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera sinatu ezin izateko arrisku handia egon daiteke; izan ere, Ministerioko sinatzeko aplikazio informatikoa kolapsatu egiten da azken bi egunetan.

ESKAERA FORMULARIOA (11. art.)

Eskaera formulario elektronikoa (11.4 art.)

Eskaera egiteko formulario elektronikoak, proiektuaren, erakunde eskatzailearen eta ikerketa taldeko kideen eta lantaldeko doktoreen identifikazio datuez gain, honako informazioa eta dokumentazioa bildu beharko ditu:

- Proiektua ebaluatzeko hautatutako kudeaketa arlo tematikoaren identifikazioa.
- Ekintza zein erronkatara bideratuko den identifikatzea nahitaez, Gizartearen Erronketara bideratutako I+G+B Estatu Programan Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatu Planean jasotako zortzi erronken artean, edo oinarrizko teknologia erraztaileen artean.
- Jarduketaren laburpena (gaztelaniaz eta ingelesez), espero den eragina eta ikertzailearen edo ikertzaile nagusien curriculumaren laburpena.
- Proiektua Doktoreak prestatzeko doktorego aurreko kontratuen deialdian sartzeko eskaera.

	• Proiektuaren emaitzetan interesatutako entitate publiko edo pribatuen identifikazioa, halakorik egonez gero. • Onartzea ebaluazioa autonomia erkidegoetara helarazi ahal izatea, betiere erkidego horiekin batera eskainiko den programazioaren deialdietan parte hartzeko aukera dagoenean. Eskaera egiteko orri elektronikoarekin batera <u>ikertzaile nagusiak</u> honako dokumentu hauek <u>aurkeztu beharko ditu</u>: • Proiektuaren memoria zientifiko-teknikoa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Ingelesezt edo gaztelaniazt aurkeztu ahal izango da. Koordinatutako proiektu bat aurkezten denean, memoria zientifiko-tekniko bakar bat egingo da, eta bertan jasoko dira azpiproiektu bakoitzaren helburuak eta zereginak. Memoria hori proiektua koordinatzen duen ikertzaile nagusiak aurkeztuko du, eta aplikazio telematikoak automatikoki sartuko du azpiproiektu bakoitzera. • Ikertzailearen edo ikertzaile nagusien curriculum laburra, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera, edo curriculum vitae normalizatua (CVN). Ikertzaile nagusiak honako hauek aurkeztu beharko ditu: • Ikerketa taldeko doktoreen batek erakundearekin daukan lotura proiektua aurrera eramateko epea baino laburragoa bada, erakundearen konpromisoa, ziurtatzeko doktorea erakundeari lotuta egongo dela epe hori amaitu artean . • Ikerketa taldeko kideen eta, egonez gero, lantaldeko doktoreen curriculum laburra, web orriko ereduaren arabera. • Eskatzaileek dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko dute artikulua honetan zehazturiko kasu bereziren batean baldin badaude (itsas plataformak erabili behar dituzten proiektuetarako, Antartikako itunak babestutako eremuan garatu beharreko proiektuetarako eta atmosferari, klimari eta aldaketa klimatikoari lotuta dauden eta gauzatu ahal izateko datu meteorologikoak behar dituzten proiektuetarako).
Erakunde onuradunarekin elkartutako erakundeentzako dokumentazio berezia	Elkartutako erakundeek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkiote erakunde onuradunari (<u>erakunde onuradunaren legeztako ordezkariari eskatzen zaizkion berak dira</u>) (11.6 art.) • Erakundeak Erakundearen Sistemaren (SISEN) inskribatuta egon beharko du, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoan. Bertan, erakunde horretako legeztako ordezkariaren ahalmenaren edo ordezkariaren egiaztatzea aurkeztu beharko du, jada espedientearen jasota ez badago behintzat. (11.2 art.) • Eskaerak sinatzeko aplikazioaren bidez, honako hauek egin beharko dira: ➢ Espresuki baimena emango da instrukzio organoak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izateari buruzko informazioa egiaztatu dezan edo beste organo batzuen bidez horren berri izan dezan. ➢ Bidaltzea ondoren aipatzen diren atalak izango dituen erantzukizunpeko adierazpena, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera: – diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izaera lortzeko ezarritako debekurik ez duela azaltzen duena.

	– Betetzea onuradunen betebeharrak, aipatutako legearen 14. artikuluan aipatutakoak. – pilatutako diru laguntzarik jaso ez izana (azaroaren 17ko 38/2003 Legea garatzen duen arautegiko 33. artikuluan adierazitakoaz bat) eta, hala badagokio, laguntzaren xede diren jardueretarako bateragarritasunari eragin diezaioketen beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide publiko edo pribatuaren zerrenda zehatza. Kontabilitatea banatuta izatea: merkataritza arloko jarduerak alde batetik eta merkataritza arlokoak ez direnak bestetik.
--	---

ESKAERAK AURKEZTEA (11. art.)

1. IKERKETA TALDEEK ETA PROIEKTUEN LANTALDEEK BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEA

Egiaztapen hau nahitaezkoa da ikertzaile nagusiek, ikerketa taldeetako kideek eta lantaldeetako kideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

Proiektuko ikertzaile nagusiak I. ERANSKINEAN gehitutako dokumentua bidaliko du bere ikastegirako adierazitako helbide elektronikora. Dokumentu hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrialdean dago eskuragarri, eta dagokion deialdiaren epea amaitu baino gutxienez **5 egun balioudun** lehenago bidali beharko da.

Proiektuaren proposamena prestatzeko lanek aurrera egin edo ez (argibideei jarraituz), I. ERANSKINA lehenbailehen bidaltzea gomendatzen dugu. Bertan, ikerketa taldeak eta lantaldeak osatuko dituzten pertsonen zehaztasunak agertuko dira, baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ahal izateko.

I. eranskin hori bidali ezean edo eskaeran egin beharreko aldaketak bertan zehaztu ezean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du eskaera sinatuko, eta, ondorioz, ez da deialdian aurkeztutzat joko.

2. ESKAERAK FORMALKI AURKEZTEA IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO ESTATU IDAZKARITZAREN WEB ORRIALDEAN

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira, eskaeraren eta sinadura elektronikoen bitartez (Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoa eskura daitezke):

- Bi ikertzaile nagusi dituzten proiektuetan, formularioa jakinarazpenetarako bitartekari gisa izendatutako pertsonak aurkeztuko du.
- Koordinatutako proiektuetan, azpiproiektu bakoitzeko ikertzaile nagusiak eskaera bat aurkeztu beharko du.

Eskaera bete eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak adierazitako aldaketak zehaztu ondoren, baliozkotu eta telematikoki bidali behar da.

Jarraian, aplikazioak automatikoki sortzen duen dokumentua inprimatu beharko da, ikertzaile nagusiaren eta ikerketa taldeko kideen sinadura originalak bertan jasotzeko.

Ondoren, eskaerak aurkezteko dagokion modalitateko epe ofiziala amaitu baino gutxienez **3 egun balioudun** lehenago, hemen adierazitako dokumentazioa bidaliko da, eskaneatuta, ikertzaile nagusiari dagokion ikastegiarentzat zehaztutako helbide elektronikora:

- Sinadurak biltzen dituen dokumentua
- Laburpen ez aurkeztugarria
- Memoria teknikoa

- UPV/EHUkoak ez diren pertsonen parte-hartzea baimentzen duen dokumentua
- Proiektuaren emaitzetan interesa duten erakunde publikoen edo pribatuen babes dokumentala
- Pilatutako diru-laguntzarik jaso ez izanaren adierazpen zehatza edo, hala badagokio, bateragarritasunari eragin diezaioketen beste diru-laguntza, bestelako laguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatuen zerrenda zehatza (eredua ikus daiteke UPV/EHUren web orrialdean)

Dokumentazio originala, eskaneatuta, barneko posta bidez bidaliko da helbide honetara (ez erregistroaren bitartez):

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza
Deialdien Atala
Leioako Campuseko Errektoretza
Sarriena auzoa, zk.g.
48940 Leioa

INFORMAZIO GEHIAGO

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren UPV/EHUren datuak:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa
- **Legezko ordezkaria:** Fernando Plazaola Muguruza
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

UPV/EHUko HARREMANETARAKO PERTSONAK

Benetan gomendagarria da jarraian zehaztutako pertsonetako edozeinekin harremanetan jartzea, entregatzeko dokumentazioa berrikus dezan eta, hala dagokionean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskaera elektronikoki sina dezan.

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEZAKO TEKNIKARIAK

Arabako Campusa	IKASTEGIAK	TEKNIKARIA	TELEFONOA	Helbide elektronikoa
	• Farmazia F.	Javier López de Lacalle	945014407	convocatoriasaraba.dgi@ehu.es igz.arabadeialdiak@ehu.es
	• Letren F.			
	• Gasteizko Enpresa Ikasketen UE	María Martin	945013421	
	• Gasteizko Ingeniaritzako UE	Iker Cantabrana	945013603	
	• Gasteizko Irakasleen UE			
	• Gasteizko Gizarte Langintzako UE			
	• Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	Susana Sanz	946013126	

Bizkaiko Campusa	IKASTEGIAK		TEKNIKARIA	TELEFONOA	Helbide elektronikoa
	- Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. - Bilboko Enpresa Ikasketen UE (Zubiri Etxea-Sarriko)		Brenda Ubeda	946013629	convocatoriasbizkaia3.dgi@ehu.es igz.bizkaia3deialdiak@ehu.es
			Roberto de Miguel	946013630	
	- Bilboko Ingeniaritza GET - Nautika eta Itsasontzi Makineria GET - Meatzen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE - Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE		Ane Arruza	94 6018253	convocatoriasbizkaia1.dgi@ehu.es igz.bizkaia1deialdiak@ehu.es
			Mikel Uria	946013964	
			Pilar Furones	946017246	
	- Medikuntza eta Odontologia Fakultatea - Leioako Erizaintzako UE - Zientzia eta Teknologia Fakultatea		Endika Ceballos	946018171	convocatoriasbizkaia2.dgi@ehu.es igz.bizkaia2deialdiak@ehu.es
			Cristina Castro	946013341	
			Leire Carballes	946018172	
			Leire Idoiaga	946018167	
	- Bilboko Irakasleen UE - Arte Ederren Fakultatea - Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. - Lan Harremanen UE		Elena Erice	946018169	convocatoriasbizkaia4.dgi@ehu.es igz.bizkaia4deialdiak@ehu.es
			Egoitz Celaya	946018445	
		Isabel Urrutia	946017934		
Gipuzkoako Campusa	IKASTEGIAK		TEKNIKARIA	TELEFONOA	Helbide elektronikoa
	- Zuzenbide F. - Informatika F. - Kimika F. - Arkitekturako GET - Psikologia F. - Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F. - Donostiako Enpresa Ikasketen UE - Donostiako Erizaintzako UE - Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE - Donostiako Irakasleen UE - Donostiako UE Politeknikoa		Amalia Fotinopulos	943015974	convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.es igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.es
			Cristina Garcia-Leiva	943015683	
			Elena Adarraga	943015180	
			Lierni Irure	943015503	
			Nerea Casas	943015359	

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOKO KONTAKTUAK

Kontsulta orokorrak	Telefonoa: 902 21 86 00 / 914 959 554 Posta elektroniko bidez, Ministerioko web orrialdetik
Kontsulta informatikoak	Telefonoa: 91 603 82 20 Posta elektroniko bidez, Ministerioko web orrialdetik